A1288

herrera

Kilometroak prestatzen

Gure auzoko Herri Ametsa ikastolak eta Zurriola ikastolak elkarrekin kaleratu dute «*Kilometroak*» izeneko aldizkaria. Bertan, ikastolen sorrerari buruzko historia, Kilometroak 95ek izango dituen ibilbide eta arloak, abestia... aztertzen dira.

Ikastolako arduradunak burubelarri dabiltza urrian Ulian egingo den ikastolen festa handia antolatzen.

Duela 29 urte Herreran Herri Ametsa ikastola martxan jarri zuen guraso talde batek, hain zuzen 1966ko ekainaren 16ean egin zen ikastolako lehen bilera eta bertatik hurrengo ikasturtea martxan jarriko zuen bitarteko batzordea atera zen. 1967.-68 urteko ikasturtea 25 ikaslerekin hasi zen Mendi-Zaleak mendi taldeko lokaletan. Irakaskuntza lanak Maritxu Arrizabalaga eta Agurtzane Mujikaren esku egon ziren hasiera haietan.

Hainbat salaketa eta arazoren ondoren, Peruene-Berriko lokaletan finkatu zen ikastola.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Herri Ametsa ikastolaK antolatuko du aurten Zurriolarekin batera Kilometroak 95.

altza

Droga mintzagai

Askagintzaren X Jardunaldiak hasiko dira hilaren 24ean. Gaia «*Drogen gizarte arazoa gaur, atzo eta bihar*» izango da. Gainera, Askagintza taldean urtetan lanean arituta-ko Paco Mateo zenaren omenez antolatu dira ekintza guztiak.

Lau mahainguru antolatu dira ekintzen oinarri izango direnak. Azkenik, haur jai batek umore eta kolore desberdina emango dio asteari hilaren 29an. Haurrei drogari ez esaten erakusteaz gain, jokuen alaitasuna erakutsi nahi zaie.

Egitaraua astelehenean hasiko da «*Prebentzioa eta drogak*» mahai-inguruarekin. Bertan parte hartuko dute Eusko Jaurlaritzako Drogomenpekotasunen Idazkari Orokorrak, Javier Ruizek; Nafarroako gai bera daraman Gabriel Hualdek eta Askagintzako Deunoro Oterok. Asteartean, hilak 25, «*Terapia, laguntza eta drogamenpetasunak*» gaia izango da hizpide. Asteazkenean, «*Gizarte mugimenduak drogaren aurrean*» inzeburupean hainbat elkartetako kide arituko dira solasaldian. Osteguna-nean berriz, «*Droga eta gizarte kontrolaz*» arituko dira.

Aste osoan zehar ospatuko diren mahai inguruak Casares Kultur Etxean izango dira arratsaldeko 19.30etatik aurrera.

Parket leunketa,
lixaketa eta barnizketa

JOXAN

Askatasunaren Martirien etorbidea, 4-10. A Tfnoa.: 52 02 40 ERRENTERIA